

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 3779

*EBAZPENA, 2023ko uztailaren 5ekoa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 15eko Aginduaren bidez iragarritako laguntzen erakunde onuradunen zerrenda argitaratzeko dena (2023ko ekitaldian ekipamendu zientifikoa eskuratzeko laguntzen deialdia; 2022ko urriaren 13ko EHAA, 196. zk.).*

Deialdi-aginduaren 14. artikulua arabera, Hautaketa Batzordeak Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari aurkeztuko dio ebazpen-proposamena, eta hark esleipenak egingo ditu ebazpen baten bidez; ebazpen hori Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko da, hargatik eragotzi gabe gerora EHAA-n laguntzen erakunde onuradunak eta eman zaizkien diru kopuruak zein izan diren argitara ematea, publizitate-ondorioetarako.

2023ko ekainaren 14an ebatzi zen deialdia, eta hurrengo egunean Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu zen ebazpena; beraz, argitara eman behar da zein izan diren laguntzen erakunde onuradunak eta zein emandako diru kopuruak, publizitate-ondorioetarako. Horregatik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 15eko Aginduaren babesean, ekipamendu zientifikoa eskuratzeko emandako laguntzen erakunde onuradunen zerrenda eta diru kopuruak argitaratzea (agindu horren bidez, 2023ko ekitaldian ekipamendu zientifikoa eskuratzeko laguntzen deialdia egin zen; 2022ko irailaren 15eko EHAA, 196. zk.). Ebazpen honen eranskinean ageri dira erakunde onuradunen zerrenda eta emandako diru kopuruak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 5a.

Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea,  
ADOLFO MORAIS EZQUERRO.

2023ko abuztuaren 3a, osteguna

ERANSKINA  
ENTITATE ONURADUNAK

Espedientearen zk.	Hurrenkera	Ekipamendua	Ikertzaile nagusia	Entitatea	1. entitate laguntzailea	Emandako diru-kopurua
EC_2023_1_0015	1	HT-XRD/XRF; X izpizko difraktometroa (XRD), temperatura altuko (2000°C gehienez) eta atmosfera kontrolatuko kamera daukana, eta XRF integratuta.	Hurtado Hurtado, Jose Ignacio	Goi Eskola Politeknikoa, S.Coop.	Fundación Tecnalia Research and Innovation	120.542,66
EC_2023_1_0017	2	Anton Paar MCR 102 PACKAGE POWDER FLOW & SHEAR CELL	López García, Alejandro	Deustuko Unibertsitatea		26.993,60
EC_2023_1_0013	3	TORNIA; Multitask tordua, mekanizazio-lanak optimizatzeko adimen artifizialaz eta Machine Learning teknikez balliatuz.	Arrazola Arriola, Pedro Jose	Goi Eskola Politeknikoa, S.Coop.	BCAM Basque Center for Applied Mathematics Elkarte (BCAM)	155.255,90
EC_2023_1_0014	4	Zelulak analizatzeko eta aukeratzeko gailua	Arranz Mendiguren, Amaia	Achucarro Basque Center for Neuroscience Fundazioa		172.447,55
EC_2023_1_0010	5	Electron spin resonance scanning tunneling microscope (ESR-STM)	Choi, Deungjang	Asociacion de Investigacion Mpc - Materials Physics Center	Fundación Donostia International Physics Center (D.I.P.C.)	559.817,61